

MIÑANO MENOR / MIÑAO GUTXIA

— ARABA / ÁLAVA —

Miñao Gutxia Gasteiztik 12 bat km-ra dago, iparraldera. Handik joateko, Gamarrarantz jo eta Legutiora doan N-240 errepide nazionala hartuko dugu; 8. irteerara heltzean, itzulbidea egin eta, parke teknologikorako seinaleari jarraituz, A-3604 toki-errepidetik helduko gara herrira.

XI. mendean, *Mengano Goien* deitutako herriak, Ubarrundiako barrutiaren baitan zegoela, hesi-burdina bat —Miñaok eta dagoeneko hustuta dauden Gernika eta Uribarri Araka herrixkek beste— ordaintzen zion Donemiliaga Kukulako monasterioari, orduan zituen hamar etxeengatik. Geroago, Zigoitiko eta Legutioko artzapez-barrutien baitan egon zen, eta 1332an, Gasteizko udalerria osatzera igaro zen, bere ondoko Miñao herria bezala.

XIII. mendearen amaierarako, ordea, bi herri on artean alde nabaria zegoen, biztanle-kopuruari eta erosteko ahalmenari zegokienez. Izan ere, Arabako herriek Tarifako kanpainarako egindako ekarpenetan, Miñao Gutxiak 389 marabedik ematen zituelarik, 868 izan ziren Miñaok emandakoak. Ildo beretik, 1295ean, San Bizente parrokiak bi onuradun zituen, eta Miñaoko San Lorenzok, aldiz, bost. XVIII. mendearen hasierako hamarkadetan, Miñao Gutxiko elizaren egoera hain txarra izatera iritsi zen, ezen, 1727ko artzain-bisitan jasotakoaren arabera, parrokiaren detxemak apaiz bat mantentzeko beste ere ez ziren.

El pueblo de Miñano Menor está situado a unos 12 km al norte de Vitoria-Gasteiz. Partiendo de la capital alavesa hacia Gamarra, se toma la carretera nacional N-240, que se dirige a Legutiano hasta la salida 8, donde hay que hacer un cambio de sentido, y siguiendo la indicación de "Parque tecnológico" por la carretera local A-3604, se llega al pueblo.

En el siglo XI *Mengano Goien* pagaba a San Millán de la Cogolla una reja por las diez casas que lo habitaban, la misma cantidad que Miñano Mayor y las aldeas ya despobladas de Guernica y Ullibarri Araca, en el alfoz de Ubarrundia. Con posterioridad pasó a los arciprestazgos de Zigoitia y Villarreal, para en el año 1332 formar parte del municipio de Vitoria como su vecino Miñano Mayor.

A finales del siglo XIII se aprecian ya claras diferencias entre ambos lugares en cuanto a su población y a su poder adquisitivo, pues en las aportaciones de los pueblos de Álava a la campaña de Tarifa, Miñano Menor entregaba 389 maravedíes, mientras que Miñano Mayor contribuía con 868. Igualmente, en 1295 la parroquia de San Vicente tenía dos beneficiados, frente a los cinco que había en San Lorenzo, de Miñano Mayor. La situación de la iglesia de Miñano Menor llegó a ser tan precaria en las primeras décadas del siglo XVIII, que la visita pastoral de 1727 reconoce que los diezmos de la parroquia son "tan tenues", que no eran "suficientes para la manutención de un sacerdote...".

San Bizente Martiria eliza / Iglesia de San Vicente Mártir

TENPLUA HERRIAREN ipar-mendebaldean dago, San Bizente martiriaren izenpean; datu bitxia da hori, izan ere, Miñaon bezala diakono santu bati eskaintzen zaiolako. Eraikinak Erdi Aroko egiturari eusten dio: harlangaitzez egina da eta silarriak ditu izkinetan. Kanpoaldea oso desitxuratuta dago, geroagoko garaietan erantsitako elementuengatik, antzinako eliza erromanikoaren bolumenak ezkutatu egiten dituzte eta. Hegoaldeko horman, eliz atariaren gainean eraikitako apaizetxeari dagokion eranskina ikusten dugu, integratuta eta itxita dagoenez, guztiz oharkabea geratzen dena. Tenplura sartzeko zeharkatu

EL TEMPLO está situado en la parte noroeste del núcleo poblacional y se encuentra bajo la advocación de San Vicente mártir, curiosamente un santo diácono, como en Miñano Mayor. Es un edificio que conserva su estructura medieval, realizada en mampostería con sillares en las esquinas. El exterior está muy distorsionado por los añadidos de épocas posteriores que ocultan los volúmenes de la primitiva iglesia románica. En el muro sur encontramos el recrecido que corresponde a la casa cural, construida sobre el pórtico, que ha quedado integrado y cerrado, pasando totalmente desapercibido. Accedemos al templo a

behar den atalondoan arku konopial molduradun bat aurkitzen dugu: dobela handiak ditu, eta edertzeko ukituak egin zaizkiola erakusten du. Micaela Portillak gotikotzat hartzen du xv. mendearen azken hamarkadetan eta xvi. aren lehenengoan egindako portada hau.

Hegoaldeko horman bertan ere, apaizetxearen eskuineraldera, erdi-puntuko hiru arkiboltak eta deskarga-arkuak osatutako leihate erromaniko bikain bat dago. Lehenengo arkibolta lantza-formako hostoz osaturiko eta bertikalean ezarritako bi ilarak apaintzen dute. Bigarrenak erliebe nabarmenduko eta forma ganbileko sei hosto oso zabal erakusten ditu; zurtoin zabal bat dute erdian, eta horretatik folioloak irteten dira, simetria gordez. Hirugarren arkiboltak ere landare-apaindura du, punta zorrotz eta nerbio perlatsuko hostoz osatua. Hiru arkibolten apaindura zerrahortzez eta zirkulu trepanatuz eratutako zerrenda fin batzuek osatzen dute. Multzo osoaren gainean, ziriz apainduriko deskarga-arku bat dago, eta motibo hori kapitelen gaineko zimazioetara ere hedatzen da.

Baoaren bi alboetan, hiruna zutabe aurkitzen ditugu, eta beste horrenbeste zutabetxo, zutabearteetan. Atzapardun harroinetan bermaturiko fuste lisoak dituzte, eta kapiteletan erakusten dituzte apaingarriak interesgarrienak. Horrela, alde bakoitzeko lehenengo kapitelean, hazpegi eskematiko samarrak dituzten bi emakumeren buruak ageri

través de un zaguán donde encontramos un arco conopial moldurado, con grandes dovelas, que ha sido retocado con intención de embellecerlo. Micaela Portilla cita esta portada como una obra gótica, perteneciente a las últimas décadas del siglo xv y primera del xvi.

En el muro sur, a la derecha de la casa cural, encontramos un magnífico ventanal románico formado por tres arquivoltas de medio punto y sobrearco. La primera arquivolta va decorada con dos hileras de hojas lanceoladas dispuestas en vertical. La segunda, muestra seis hojas muy anchas, de relieve marcado y forma convexa, que están compuestas por un tallo central ancho del que salen foliolos dispuestos simétricamente. La tercera arquivolta lleva una decoración también vegetal, a base de hojas puntiagudas y nervios perlados. La decoración de las tres arquivoltas se complementa con finas cenefas de dientes de sierra y círculos trepanados. Coronando el conjunto se encuentra un sobrearco o chambrana decorada con tacos, motivo que se extiende también a los cimacios que coronan los capiteles.

Flanqueando el vano encontramos tres columnas a cada lado y otras tantas columnillas en los intercolumnios. Son columnas monolíticas, con los fustes lisos, que se apoyan en basas de garras, siendo en los capiteles donde se manifiestan los motivos ornamentales más interesantes. Así, en el primer capitel de cada lado encontramos dos



Kanpoaldea

Exterior

dira; zeta izurtsuzko burukoa eta kokospekoa daramatzate. Beste kapitelak bolutekin amaitzen diren oso hosto lauek eta erdiko nerbioa oso nabarmendua duten lantza-formako hostoek apaintzen dituzte.

Leihatearen gainean, eta teilatu-hegalaren azpian, zortzi harburu ageri dira ilaran. Burualdetik hasita, lehenengo, elkarren besoetatik eta burutik heltzen dioten bi pertsonaiaren arteko borroka aurkitzen dugu; motibo hori Uribarri Arratzuko portadan ere ageri da. Bigarrenak erliebe txikiko ebakigunez egindako saski-erako apaindura erakusten du. Hirugarrenak zirkulu zentrokidez apainduriko lau bola ditu angeluetan. Laugarrena basapiztia baten burua da: belarri puntazorrotzak, begi irtenak eta hortz zorrotzak ditu. Horren ostean, biribilkiz apainduriko beste harburu bat, angeluetan bolak dituen beste bat, harrapakin bat jaten ari den animalia-buru bat eta saski-erako motibo bat datoz.


Ondo landutako harburuak dira, eta oraindik ikusi ahal dira, nahiz eta ilara horrek hegoaldeko fatxada osoa –tenpluko behinena– hartzen zuen luzetara; gaur egun, ordea, apaizetxeak ezkututzen du zati bat. Micaela Portillak *Gasteizko Elizbarrutiaren Monumentuen Katalogoan* jasotakoaren arabera, etxe horren goiko solairuan zeuden harburuak agerian zeuden 1997ko obrak egin aurretik, baina esku-


cabezas femeninas con las facciones algo esquemáticas y tocado de cendal rizado con barbuquejo. Los otros capiteles se decoran con hojas muy planas, rematadas en volutas y hojas lanceoladas con nervio central muy marcado.

Sobre el ventanal, y bajo el alero del tejado, se conserva una hilera de ocho canecillos. Comenzando por la cabecera, encontramos un canecillo que representa la lucha o combate de dos personajes que se agarran de los brazos y cabeza, motivo que se repite en la portada de Ullibarri-Arrazua. El siguiente muestra una ornamentación de encestado inciso de poco relieve. El tercero tiene cuatro bolas en los ángulos, decoradas con círculos concéntricos. El cuarto es la cabeza de un animal fiero, con orejas puntiagudas, ojos saltones y dientes afilados. Le siguen otros canecillos decorados con rollos, bolas en los ángulos, una cabeza zoomorfa devorando una presa y un motivo de encestado.

Son canecillos bien trabajados que aún podemos ver, pero esta hilera se extendía, de forma continua, a lo largo de toda la fachada meridional, la principal del templo. Una hilera que hoy está oculta, en parte, por la casa cural. Micaela Portilla recoge en el *Catálogo Monumental de la Diócesis de Vitoria*, cómo los canecillos, que estaban en el piso alto de dicha casa, quedaban a la vista antes de las obras

Oinplanoa / Planta





Hegoaldeko altxaera / Alzado sur

Ebaketa luzetara / Sección longitudinal



hartze horrek galarazi egin du beraietarako irispidea. Aditu horren arabera, batek biribilkizko modiloak irudikatzen zituen, beste batek, munstro baten burua, eta hirugarrenaren apaindura zehaztu ezinezkoa zen, harburua oso hondaturik zegoen eta.

Mendebaldeko horman, itsatsiriko estalpe bat aurkitzen dugu, eta haren barruan, kontrahorma bat eta Erdi Aroko harri-hondarrak, horman txertaturik. Tenpluaren jatorrizko altura ere hauteman dezakegu, eta beraren zabaleira igarri, bai eta lehenagoko teilatuaren bi isurkiko estalkia ere, apaizetxearen eraikuntzari dagokion aldea luzeagoa duena.

Iparaldean, ekialdetik hurbilen dagoen eremuan, eta presbiterioaren parean, hilerria dago. Teilatu-hegalaren azpian, Erdi Aroko harburuz osaturiko ilara baten hondarrak ageri dira. Burualdean, dorrea eraiki zen, eta, horrela, antzinako bolumenak desitxuratu eta tenpluaren barruan ikusten den leihate itsutua ezkutatu egin zen.

Barrualdeak nabe bakarra eta kanoi-ganga zorrotz batez estaliriko burualde zuzena ditu, eta pilastraz eutsiriko garaipen-arku zorrotz batek banantzen ditu bi aldeok. Nabearen lehenengo zatia da nabarmenduena, eta mentsuletan bermatzen diren arku lodi gurutzatuz eraturiko ganga batek estaltzen du. Nerbiook lore-motiboz apainduriko erdiko giltzarrian elkartzen dira, eta giltzarriaren alboetan, bi buru ageri dira: bat, gizon batena, eta bestea, animalia-itxurako batena.

Zati hori estaltzen duten arku gurutzatuen artean, armazoi-arku estuago eta laburrago batzuk azaltzen zaizkigu. Arku horiek besoak altxatuta –eusle modura– eta ia gorputz erdia irudikatuta duten giza irudietan daude bermatuta. Darenen eta zaldunaren txandakako agerpena gogorarazten diguten gizonezko eta emakumezko irudiak dira. Gai interesgarri horrek inguruko beste tenplu batzuekiko erlazioan jartzen du orain mintzagai dugun eliza. Emakumeek adats laburra dute eta oso buruko garaia daramate. Burukoa itxuratzten duten iltze-buru txikitxoak horizontalean gainezartzen dira, Erdi Aroko oihal finezko burukoak gogora ekarri. Emakumeetako batek, botoi-ilara bat du bularraldean, eta besteak, kaxa-erako alkandora-lepoa, erdian malko bat duena. Zaldunek adatsa dute, belarrien atzetik erortzen, bai eta kopeta-ilea ere. Armazoi-arku horien azpian, nabearen kontrahormetan zuzenean bermaturiko arku zorrotzak dituzten bi hobiitsu irekitzen dira.

Pilastra sendoek eutsiriko parpain-arku zorrotz batek bereizten du zati hau –gurutzadura esan geniezaiokeena– nabearen gainerakotik. Orain arte arku eta pilastretan ikusi dugun harri guztia erdian itxurak ez du zalantzarik sortzen: kolore urdinxkako kareharria da. Hastialean, oinaldera, nabearen gainerakoa bitan banatzen duen beste parpain-

de 1997, intervención que ha imposibilitado el acceso a los mismos, y que representaban los siguientes motivos decorativos: "Uno, con modillones de rollos; otro, con una cabeza monstruosa; un tercero, muy destrozado, sin ornamentación reconocible".

En el muro occidental encontramos un cobertizo adosado y, dentro de él, se puede ver un contrafuerte y restos de piedras medievales incrustadas en el muro. También se puede apreciar la altura original del templo y adivinar su anchura, así como la cubierta a dos aguas del tejado primitivo, que tiene mayor prolongación en el lado que corresponde a la construcción de la casa cural.

En el lado norte, en la parte más oriental, y coincidiendo con el presbiterio, se encuentra el cementerio. Bajo el alero del tejado se conservan los restos de una batería de canecillos medievales. En la cabecera se construyó la torre, desfigurando los volúmenes primitivos y ocultando, sin duda, el ventanal cegado que se manifiesta en el interior del templo.

El interior presenta una sola nave y una cabecera recta, cubierta con bóveda de cañón apuntado, separadas ambas por un arco triunfal apuntado, soportado por pilastras. El primer tramo de la nave es el más destacado y tiene como cubierta una bóveda de gruesos arcos cruzados que se apoyan en repisas. Estos nervios se unen en una clave central decorada con motivos florales, flanqueada por dos cabezas, una masculina y la otra zoomorfa.

Entre los arcos cruzados que cubren este tramo encontramos unos arcos formeros, más estrechos y cortos, que descansan sobre figuras humanas, representadas casi de medio cuerpo y con los brazos levantados, a modo de tenantes. Se trata de un hombre y una mujer, recordando la alternancia de "dama y caballero", tema muy interesante que vemos repetido y que se pone en relación con otros templos cercanos. Las mujeres llevan melena corta y un tocado muy alto, formado por pequeñas cabecitas de clavo, que se superponen horizontalmente y que recuerdan a los tocados medievales realizados en cendal. Una, muestra una hilera de botones en la pechera, y la otra, el cuello a la caja, con una lágrima en el centro. Los caballeros llevan melena, que cae por detrás de la orejas, y flequillo, sobre la frente. Bajo estos arcos formeros se abren dos nichos ciegos con los arcos apuntados, que descansan directamente en los contrafuertes de la nave.

Un arco fajón apuntado, que descansa sobre fuertes pilastras, sirve de separación entre este tramo, que podríamos considerar el crucero, y el resto de la nave. Toda la piedra que hasta aquí hemos visto en arcos y pilastras presenta un aspecto contundente: es una caliza de color azulado. En el hastial, hacia los pies, hay otro arco fajón



Hegoaldeko leiboa

Ventana sur

arku bat dago. Kanoi-ganga zorrotz batek estaltzen du, eta azken zatian, txikitxoagoa da. Arku hori bestek baino estuagoa da, eta ez hain zorrotza, eta harri zuriagoz eginda dago. Giltzarrian duen medailoi apainduak landare-koroa bat darama kanpoaldean, eta alboetan bi zirkulu txiki dituen ontzi erliebedun bat, barrualdean.

Aipatutakoez gain, Erdi Aroko beste elementu batzuk ere badaude tenpluaren barruan: hiru leihate, presbiterioko albo-mahaiak eta gangako pinturen hondarrak, hain zuzen. Burualdeak bi bao ditu, kanpoaldetik kanpandorreak estaltzen dituenak. Goikoa erdi-puntuko arku txaranbeldu estu eta luzatu bat da, eta gezi-leiho moduko laprandura sakoia du, arkibolta baten hondarrak ikusten uzten duena. Behekoa argi-bao lerdin eta estua da, eta dorrearen hormak itsutzen du; han, inposta-zati batek eta harrizko betegarriak erakusten digute non dagoen bermatuta. Barrualdean, baoa inguratzen duen markoa lisa da, eta bi arkibolta ditu osagarri. Lehenengo arkiboltak lantza-forma eta erdiko ner-

que separa en dos espacios el resto de la nave. Se cubre con una bóveda de cañón apuntado, siendo ligeramente más bajo el último tramo. Es un arco más estrecho y menos apuntado, realizado en piedra más blanca, que lleva en la clave un medallón decorado, en su parte exterior, con una corona vegetal, y, en su interior, con un jarrón en relieve con dos círculos pequeños a los lados.

En el interior del templo se conservan, además, otros elementos medievales: tres ventanales, las credencias del presbiterio y restos de pinturas en la bóveda. La cabecera muestra dos vanos que permanecen ocultos desde el exterior por la torre-campanario. El superior es un vano con arco de medio punto, abocinado, estrecho y rasgado, con un profundo derrame a modo de aspillera, en el que se aprecian restos de una arquivolta. El inferior es un vano de luz esbelto y estrecho, que se halla cegado en el muro de la torre, dónde vemos un trozo de imposta y el relleno de piedra que nos indican dónde duerme. En el interior, el



Harburua / Canecillo

bio oso nabarmenduak dituzten bi hosto-mailak erakusten ditu, eta bigarrenak, berriz, baketoia du eta soka-itxurako motiboz dago apaindurik. Apaindura arkibolten arkubarneran eta arkugaineran zehar hedatzen da, hegoaldeko hormako kanpoaldeko leihatean ikusi dugun eredu berari jarraitzen dioten zerra-hortzen bidez. Multzoa inguratzen duen txanbrana edo hauts-babesa ebakiriko zirkulu baten barruan ageri diren zortzi hostoko lorez apaintzen da; xehetasun hori kapitelen gainetik doan inposta-lerroan zehar ere hedatzen da.

Baoaren bi aldeetan, fuste lisoko bi zutabe daude; atzapardun harroinetan bermatzen dira, eta kapitela baino ez dituzte apainduta. Oso taila laua da, behe-erliebeaz eгина, eta motibo apaingarriak simetrikoki errepikatzen dira baoaren bi aldeetan. Kanpoko kapitela hegoak zabalik eta tente pausaturiko arrano bat erakusten du, eta barrukoan, elkarrengandik urruntzen diren zurtoin fin batzuek V bat osatzen dute, eta, horren goiko erpinean, hosto baten punta ageri da.

Ebanjelioaren aldean, hegoaldeko horman ikusi dugun leihatearekin bat etorritz, Erdi Aroko beste leihate bat aurkitzen dugu: erdi-puntuko arkua du, kanpoaldekoa baino sinpleagoa, baina apaingarri-bilduma aberats eta ugarikoa. Kanpoko bi kapiteleren, soka-erako eraztun baten gainean, foliolo zuzen eta dibergenteak ikusten ditugu irudikaturik,



Barrualdeko mentsula / Ménsula del interior

marco que lo rodea es liso y se completa con dos arquivoltas. La primera de ellas tiene dos registros de hojas lanceoladas y los nervios centrales muy marcados, mientras que la segunda es baquetonada y se ornamenta con motivos de sogueado. La decoración se extiende por el intradós y el trasdós de las arquivoltas, con dientes de sierra que siguen el mismo modelo que hemos visto en el ventanal exterior del muro sur. Voltea sobre el conjunto una chambrana o guardapolvo decorado a base de flores de ocho pétalos inscritas en un círculo inciso, detalle que se extiende por la línea de imposta que corre sobre los capiteles.

Flanqueando el vano encontramos dos columnas con los fustes lisos, que se apean sobre basas de garras, siendo en los capiteles donde se concentra la decoración. Es una talla muy plana, realizada en bajorrelieve, y los motivos ornamentales que se desarrollan se repiten simétricamente a ambos lados del vano. El capitel exterior muestra un águila que posa erguida con las alas explayadas, y el interior está decorado con finos tallos que se disponen de forma divergente, formando una "V" en cuyo vértice superior asoma la punta de una hoja.

En el lado del evangelio, coincidiendo con el ventanal que hemos visto en el muro sur, encontramos otro ventanal medieval con arco de medio punto más sencillo que en la parte exterior, pero con un rico y variado repertorio



*Burualdeko
leiboa*

*Ventana de la
cabecera*



*Hegoaldeko
bormako leiboa*

*Ventana
del muro sur*

eta amaieran eratzen duten kurba leunaren erdigunean, lantza-formako hosto baten punta txikia ageri da. Ardatza-ren gainean azaltzen zaigun soka-erako apaingarria alboe-tarantz zabaltzen da, zuhaitza bailitzan, eta beraren mutu-rretatik bola-erdiak daude zintzilik. Kapitela-ren erpinean, bi bola-erdiak bola ia oso bat eratzen dute, eta soka-erako apaingarriak besarkatzen eta korritzen du berori, bi aur-pegien arteko banalerroa eratuz, kapitela-ren oinarri-raino jaitsi aurretik. Barruko bi kapitela hosto fin eta lerdene-k edertzen dituzte; hosto-ok irauli egiten dira, eta, angelue-tan, zirkulu zentrokidez apainduriko bolak eratzen dituzte.

Kapitela-ren gaineko inposta-lerroa apaintzen duten hostoak bertikalean ezarri-rik daude, eta lantza-forma eta erdiko nerbio oso nabarmendua dituzte. Haren gainean, apaingarri guztiak biltzen dituzten bi arkibolta eta des-karga-arku bat daude. Lehenengo arkibolta soka-erako bi baketoi ditu; bigarrena gainezarri-ko eta beste zirkulu liso batek errematuriko zirkulu zentrokidez osatutako ilara batek apaintzen du. Bigarren arkibolta hori xakeztatu na-barmenduko bi bandaren artean dago. Arkugainera ebaki leunez egindako zirkulu-ilara bat da, eta zirkuluon barruan, zortzi hostoko loreak nabarmentzen dira. Elizbarrutiko Ar-te Sakratuaren Museoan, antzeko ezaugarriak dituen Erdi Aroko beste leihate bat dago ikusgai, San Bizente martiria elizakoa, hori ere.

Presbiterioaren bi aldeetan, arku geminatz osatu-riko bi hobi edo albo-mahai daude, liturgia-ekitaldietako liburuak eta gainerakoak gordetzeko erabiliak. Ezkerreko mahaia inposta liso batek bilduriko baketoi batez erre-matatzen du arku bikoitza; alboetan, bi zutabetxo daude, eta erdiko zurkaitza zutabe lodi bat da. Eskuineko mahaia, eskema bera errepikatzen badu ere, ezberdina da materia-lei eta formen tratamenduari dagokienez; geroagoko garai batean egin zela pentsarazten digu horrek.

Hondar interesgarrien artean, Erdi Aroko pinturak ai-patu behar ditugu: trazu garbi eta sendoz egindako izar gorrixkak eta marrazki geometrikoak erakusten dituzte, hormako gangako zartatuek pintura-geruzen azpitik ikus-ten uzten digutenez. Polikromia hori tenpluko beste leku batzuetan ere igar daiteke: arku gurutzatuen giltzarrian, edo arkuoi eusten dieten irudietan, esaterako.

Testua eta argazkiak: RHA - Planoak: MDRF

ornamental. En los dos capiteles exteriores, sobre un colla-rino sogueado, vemos representados unos foliolos rectos y divergentes que culminan con una suave curva, en cuyo centro asoma una pequeña punta de hoja lanceolada. Sobre el eje encontramos un sogueado que, en la parte superior, se despliega hacia los lados, como si de un árbol se tratara, y de cuyos extremos cuelgan unas medias bolas. En el vér-tice del capitel se unen dos mitades formando una bola casi completa, abrazada y recorrida por el sogueado que baja hasta la base del capitel y que marca la separación entre ambas caras. Los dos capiteles interiores están compuestos por finas y esbeltas hojas, que se vuelven formando en los ángulos bolas decoradas con círculos concéntricos.

La línea de imposta sobre los capiteles está decorada con hojas lanceoladas dispuestas en sentido vertical y con el nervio central muy marcado. Sobre ella se encuentran dos arquivoltas y un sobrearco, lugar donde se concentran los elementos decorativos. La primera arquivolta está reali-zada con dos baquetones sogueados; la segunda se decora con una hilera de círculos concéntricos superpuestos, que se rematan con un círculo liso, y se encuentra situada entre dos bandas de contundente ajedrezado. El trasdós es una fila de círculos suavemente incisos, dentro de los cuales destacan flores de ocho pétalos. En el Museo Diocesano de Arte Sacro se conserva y expone otro ventanal medieval de características similares, perteneciente a la iglesia de San Vicente mártir.

A ambos lados del presbiterio hay dos nichos o credencias, formados por arcos geminados, que eran uti-lizadas para guardar los libros y los objetos litúrgicos. La credencia del lado izquierdo remata el doble arco con un baquetón recogido por una imposta lisa, a los lados dos columnillas y como apeo central una gruesa columna. La credencia del lado derecho, aunque repite el mismo esque-ma, es diferente en el material y en el tratamiento de las formas, situando su realización en época posterior.

Otros restos interesantes son las pinturas medievales realizadas con estrellas rojizas y dibujos geométricos, con líneas de trazos fuertes y rotundos, motivos que nos permi-ten ver los desconchones, y que se conservan en la bóveda, bajo las capas de pintura. Es una policromía que también se puede adivinar en otras partes del templo, como en la clave de los arcos cruzados o en las figuras que los sostienen.

Texto y fotos: RHA - Planos: MDRF

Bibliografía / Bibliografía

CASTRO, C. de, 1915, pp. 187-188; LÓPEZ DE GUERENU, G., 1962, p. 510; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1997b, pp. 66-67, fig. 29; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1997c, I, pp. 198-201; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J. y MARTÍNEZ DE SALINAS DE OCIO, F., 1990, pp. 52-53; PORTILLA VITORIA, M. J., 1968, p. 70; PORTILLA VITORIA, M. J. et alii, 2001, pp. 541-544, fig. 359-362, 364-374, 376-377, 380.